



Ander Zubizarreta
Software Ingeniaria
Irudia: Wikimedia
Commons / PMK

Gezurra albiste sarean

Zurumurrua lehenagotik bazetorren ere, azken asteotako berria da hainbat sare sozial albiste faltsuen aurkako gerran murgildu direla. Facebookek berak iragarri du hainbat herrialdetan neurriak hartzen hasi dela.

Jakina da sare sozialak leku ezin hobea direla edozein motatako albiste zein mezuen zabalkuntzarako. Denbora gutxian jende askorengana iristea ahalbidetzen dute eta. Ez da kasualitatea ohiko komunikabideek ere beren lekua egin izana sare sozialetan, beste ehunka *on line* komunikabiderekin batera, beraien argitalpenak ahalik eta gehien zabaltzeko. Hedapenerako erraztasun honek, ordea, azkenaldian gero eta ohikoagoak diren albiste faltsuekin ere ezin hobeto funtzionatzen du.

Izenburu deigarriak izan ohi dituzte: *X* gaitzaren aurkako txertoa aurkitu dutela, politikari jakinak gobernura iritsiz gero hartuko dituen neurri zentzugabeak... Albiste esperantzagarriak dira batzuk, guztiok noizbait irakurri nahi izango genituzkeenak. Polemika sortzeko izenburuak dira beste batzuk, alde ezberdinetakoak eztabaida amaigabeetan murgilduko dituztenak. Sare sozialetan zein mezularitza zerbitzuetan ziztu bizian zabaltzeko diseinaturik daude guztiak. Orokorrean, edozeini atentzioa emango lioketen berriak dira, eta estekan klik eginarazten dute.



Eta hori da, hain zuzen, argitalpen horien helburua: *klik-klik* pantailaren alde batean, bestean *txin-txin* diruak hots egiten duen bitartean. Albiste horiek zabaltzen dituztenek erabiltzailea publikitatez betetako webgune batera erakartzea dute helburu, diru-sarrerak eskuratzeko. Askotan, ohiko komunikabideen guneen itxura izan ohi dute, gainera, aurpegi serioagoa erakusteko asmoz edo.

Pentsa genezake edozein webguneren helburu berbera izan daitekeela hori. Gainera, komunikabide serioek ere ez al dituzte egia-erdiak kontatzen edo izenburu manipulaztaileak erabiltzen? Albiste faltsuen kasuan, ordea, izenburu eztabaidagarrien helburua bakarra

OHIKO KOMUNIKABIDEEN GUNEEN ITXURA IZAN OHI DUTE ASKOTAN

da, bai polemika eraginez edo beste metodo batzuetaz baliatuz, atentzioa eman eta jendea, engainupean, erakartzea.

Bada beste albiste mota bat ere, gezurrezkoa izan arren, ez dena albiste faltsuen zakuan sartzen, hauetan nabarmena baita gezurrezkotasuna. Inor engainatzeko baino gehiago, barre eragiteko sortuak izan ohi diren albiste satirikoen kasua da hori, *El Mundo Today* eta *The Onion* estiloko webguneetan argitaratu ohi direnak. Haatik, errealitatea hain izan daiteke surrealista batzuetan, egon dira kasuak non komunikabide serioek webgune horietako artikulua, egiazkotzat hartuta, erreproduzitu egin dituzten. Neurriak neurri, enpresa erraldoi batek epaile lana egin gabe, norberaren esku ere badago Interneten ikusi edo Whatsapp bidez jasotzen duen mezu deigarri horrekiko mesfidantza puntu bat izatea. ■■■